

Bermeok 2020ko Euskaraldiari heldu dio

- **Urriaren 30ean osatuko da 2020ko Euskaraldiaren batzordea eta bertan edozein herritarrek parte hartu ahal izango du**
- **Bileran, besteak beste, 2018ko edizioako ondorioak eta emaitzak aztertu, 2019ko Euskararen Egunerako proposamena ezagutu eta 2020ko Euskaraldiaren edizioa aurkeztuko dira**

Bermeon, 2019ko urriaren 28an.- Bermeok Euskaraldiaren bigarren edizioari bete-betean heldu dio. Izan ere, urriaren 30ean herrian ekimen hau aurrera eramango duen batzordea eratuko da. Euskaltzaleek, herriko elkarteetako ordezkariak eta Udalak osatuko dute batzordea. Udalak biztanleen parte hartzea bilatzen du, 2018ko edizioan egin zen bezala. Honetarako, deialdi irekia zabaldu du, nahi duenak batzordean parte hartu dezan.

Bilera Bermeoko Kultura Etxeko Gaztelekuan egingo da eta, bertan, hainbat gai jorratuko dira. Alde batetik, 2018ko Euskaraldian ikasitakoen inguruan ariko da batzordea eta ondorio eta emaitzak aurkezteko hitzaldiaren berri emango da. Aurreko esperientziatik ikasitakoa mahai gainean jarri nahi da, bigarren edizioa ahalik eta hoberen atera dadin.

Euskaraldiaren lehen edizioa aztertu ostean, aurtengo Euskararen Egunaren gaiari ekingo zaio. Proposamena aztertuko da. Ondoren, 2020 Euskaraldia aurkeztuko da, parte hartzaileek xehetasunak ezagutu ditzaten. Bukatzeko, batzordeak lanerako metodologia bat definituko du, bilduko den egunak eta orduak zehaztuz.

Informazio gehiago:

- Peru Salaburu (Bermeoko Udaleko komunikazioa)
- Posta: prentsa@bermeo.eus / salaburu@biokcomunicacion.com
- Telefono zenbakia: 639 902 771